

OIHARTZUNA



UPV EHU

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

50 URTE
AÑOS
1968 - 2018

Biba Zientzia!
Ciencia Viva

1 zenbakia

OIHARTZUNA

Zientzia eta Teknologia Fakultatearen albistegia

2025eko apirila
1 zenbakia



Informazio-aldizkari berria

Gaur, Zientzia eta Teknologia Fakultateko *Oihartzuna* albistegia kaleratzen dugu, bertako langileen lorpenak ospatzeko eta, batez ere, ikerketaren eta zientzia-dibulgazioaren munduarekin lotutako jarduerari buruzko informazioa emateko. 1 zenbaki honen lehenengo zatia, ZTF/FCTko langileek 2024an lortutako aintzatespenei eta sariei buruzkoa da, eta bigarrena, berriz, Zientzia eta Teknologia Fakultateko langileek 2021-22-23 hirurtekoan lortutako ikerketa- eta transferentzia-emitzei buruzkoa.




Alicia Alonso

2024ko abenduaren 11n, **BIOFORO**ren “*The universe of lipid-protein interactions*” izeneko bilera zientifikoa Biokimika eta Biologia Molekular saileko Alicia Alonso katedradunaren omenez egin da.

Iván Aparicio

Ingeniaritza Kimikoa graduiko ikasleak, 2024an UPV/EHUⁿ eginiko Gradu Amaierako Lan Onenari ematen zaion **Kimika eta Ingeniaritza Kimikoko Euskadi-Burgos-La Rioja erkidegoetako Kolegio Ofizialaren saria** irabazi du. Lanaren izenburua “*Estireno-planta baten simulazio dinamikoa eta kontrol-sistema orokor baten garapena*” da.



Arantza Aranburu

Geologia saileko irakasleak, 2024ko martxoaren 12an “**LURPEA 2024**” saria jaso zuen. Sari hori *Lurpea* haitzulo turistikoen elkartek Arantzari eman dio koben ezagutza zientifikoa aberasteko eta ezagutarazteko egindako lan luzeagatik.



Antonio Gómez

Biokimika eta Biologia Molekular saileko katedraduna **SIGMA XI Ikerketa Zientifikoko Oho-rezko Elkarteko eskubide osoko kide** izendatu dute. Elkarte horretako hainbat kide Nobel sari-dunak dira.





Carmen González

Landare Biologia eta Ekologia saileko katedradunak, 2024ko azaroaren 20an, 2024ko Euskadiko emakume ikertzaileei aintzatespenak egiteko ekitaldian **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Ikerbasquen Advanced saria** jaso zuen, bere ibilbide osoko ikerkuntza-bikaintasunagatik.

Felix Goñi

2024ko otsailaren 22an "Euskal Herriko Medikuntzako Errege Akademia" erakundeak **"Profesor JM. Gandarias 2024"** saria eman zion Biokimika eta Biologia Molekular saileko katedradunari, bere ibilbide profesionalaren, akademikoaren eta humanoaren aintzatespen gisa.



Jennifer Huidobro

Kimika Analitikoa saileko ikertzaileak **"Abraham Zacut"** saria jaso du, doktorego tesia Zientzia Planetarioen arloko onena izateagatik. Sari hau Europlanet Society-ren iberiar nodoak ematen du.



Marta Macho

Bizkaiko Foru Aldundiak eta BBK-k **Berdintasuneko ZIRGARI 2024** saria eman diote due la 10 urte sortutako "Mujeres con Ciencia" blogari. Marta Macho Stadler Matematika saileko irakasleak blog hori koordinatzen du, eta bertan, emakume zientzialarien eta horien ekarpenen berri ematen du.



OIHARTZUNA



Juan Manuel Madariaga

Kimika Analitikoa saileko katedraduna, **Ikerbasque Fundazioko patroiz zientifiko** izendatu dute. Fundazio horrek 14 patronatu-kide ditu, eta horietatik 7 zientzialariak dira.

Ana Pascual

Geologia saileko irakasleak **BORDON 2024 saria** jaso du Aragoiko Done Jakue Bide Frantsesean geologiari buruz egindako lanengatik eta, aldi berean, bide hori komunitate zientifikoaren eta publiko orokorraren artean zabaltzeagatik eta sustatzeagatik.



Fernando Plazaola

Materialen Zientzia eta Teknologia Kongresuan **GABIREL JAUREGI 2024 saria** jaso du zientziaren eta teknologiaren arloan egindako ekarpenengatik, eta bereziki, arlo horretan euskararen garapenari emandako bultzadagatik. Halaber, Gipuzkoako Goierri zientzia zabaltzeko **"Lemniskata Goierriko Zientzia Sare Herrikoia Kultur Elkarteak"** ohorezko bazkide izendatu du eta **Beasaingo Udalak** aintzatetsi du aipatutako komunitatearen ezagutza zientifikoa areagotzearen alde egindako lan irmoagatik eta isilagatik.



Teófilo Rojo

Kimika Organikoa eta Ez-organikoa saileko katedradun emerituak eta UPV/EHUko Aparteko Ikertzaileak 2024ko **"Highly Cited Researcher"** saria jaso du; UPV/EHUko bakarra da.



OIHARTZUNA



Manuel Tello

Fisika saileko Katedradun Emerituak, **José María Savirón Zientzia Dibulgazio saria** jaso du zientziaren dibulgazioan egindako lan bikainagatik.

Ana Zubiaga

Genetika, Antropologia Fisika eta Fisiologia saileko katedraduna **2024-28 aldirako Jakiunde-ko lehendakari** hautatu dute, Arantzazun 2024ko azaroaren 22an egindako Ohiko Batzar Osoko Bilkuran.



"Hidro Geo Ingurumen" Ikerkuntza Taldea

Talde honen ekimenez, Zientzia Geologikoen Nazioarteko Batasunak (IUGS) **Ereño Gorria** edo **Bilbo Gorria kareharria Nazioarteko Ondarearen Arroka** izendatu du. Erakunde zientifiko horrek aitortutako arroken artean Carrarako marmola dago ere. **Laura Damas** izan da ekimenaren sustatzailea.



¡atención! ¡no me aplastes!
kontuz! ez nazazu zapaldu!

Zientzia inklusiboko **¡atención! ¡no me aplastes! kontuz! ez nazazu zapaldu!** proiektuak **GENERO IKUSPEGIAREN AIPAMEN BEREZIA** lortu du Eusko Jaurlaritzaren **STEAM** Euskadi Sarien IV. edizioan. Proiektuaren helburu nagusiak hauek dira: kostaldea herritarrei hurbiltzea, bertan bizi diren organismoen buruz dituzten ezagutzak zabal ditzaten, eta, horrela, parte-hartzaileak kontzientziatzea gure ingurumena zaindu beharraz, bereziki itsas ingurunea.



OIHARTZUNA




Titulazioen RANKINGak

INGENIARITZA KIMIKOA Gradua Estatuko onena gisa ageri da El Mundo egunkariak urtero argitaratzen duen eskari handiena duten bost unibertsitate onenetako 50 graduako rankingean.

Titulazioen RANKINGak

El Mundo egunkariak graduondoetarako urtero argitaratzen duen Rankingean **Ingurumen Agrobiologiaren masterrak** laugarren postua lortu du **INGURUMEN KUDEAKETA** kategorian eta joan den urteko 5. postua hobetu du.



OIHARTZUNA

Albistegi honen hurrengo zenbakiak era askotako izaera izango du. 2025. urtean zeharreko zientzia- eta teknologia-arloko ikerketei buruzko jarduerak eta beraren zabalkundearen albisteak emango ditu batez ere, eta baita egileen zabalkundea ere.



269 Doktorego-tesi



EHUko osoaren %21



2437 JCR Artikulu (WoS)




EHUko osoaren %22



2 ERC



EHUko osoaren %30



39 Patente



EHUko osoaren %75



6 Startup



EHUko osoaren %15



44 M€ Inbertsioaren itzulkina



EHUko osoaren %35



1 "Highly Cited" Ikertzaile



EHUko osoaren %100



Proiektuak
636



Kontratuak
enpresekin
471



Argitalpenen
batez besteko
inpaktua (JCR)
5'94



Inpaktua:
≥ 50 aipamen
duten artikulu
kopurua
59

* 2024/09/10an jasotako informazioa

OIHARTZUNA